

## Iruñean barrena fotografo, hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko

IRUÑEKO EUSKALGINTZAK *Aldatuko dugu!* ekimena jarri du abian eta herritarrei eskatu die hizkuntza eskubideak betetzen ez dituzten paisaia linguistikoen elementuei argazkiak ateratzeko. Euskalgintzak Udalean kexa moduan tramitatuko ditu argazkiok.

Udaleko azken ordenantza 2012koa da eta ondokoa dio: “Iruñeko Udalaren eskumena den hizkuntza-paisaia euskarak eta gaztelaniak presentzia berbera izanzen dute, eta, horrenbestez, edukia, tamaina eta kontrastea berberak izanzen dira bi hizkuntzetan, plaken, seinaleen, kartelen eta hizkuntza-paisaiaren gainontzeko elementuen errotulazioan”. Alabaina, gauza bat da paperean jasotakoa eta bestea egunerokoan gertatzen dena.

Euskalgintzak eskatu die argazkiak ateratzeko batez ere kale seinaleetika (kale izenak, norabideak, turismo plakak) eta Gayarre, auzoetako Civivox aretoak, Gazteriaren Etxea eta Labriti. Ordenantza betetzen dutela frogatzen duten argazkiak ere onartuko dira. Azken horiek Udala zoriontzeko baliatuko dira.

## Bahea

**Vicent Partalen ustez, Espainiako Estatuak Aragoi, Balear Uharteetan eta Valentzian katalanaren aurka oldartzea ez da kasualitatea. Vilaweb webgunean Espainiako Estatuaren intenzioen hausnarketa egin du:**

“BAINA egin beharreko galdera hau da: zergatik orain? Katalanaren mapa bat hartzen badugu, aintzat hartu beharreko egoera sumatuko dugu. Alguer, Iparraldeko Katalunia eta Andorrrak egoera propioak eta bereziak dituzte. Principat hor dago, jazarria hori ere, baina hizkuntza arazoak konpontzeko baldintzak ditu, independentziari esker. Gainerako lurraldeak (Principat salbu), Espainiar Estatuak azpian hartuak, historian lehen aldiz eraso koordinatu eta bateratua bizi du. Ez dut uste kasualitatea denik, uste dut lotura argia duela Kataluniako independentzia prozesuarekin. Egia da Valentzian lehenagotik datorrela katalana eta valentziera hizkuntza bera direla ukatzearena. Balear Uharteetan fenomeno zeharo berria da. Aragoi, ez zen horrelakorik ikusi.

Estatuak Principateko kultura eta hizkuntza murriztu nahi ditu, badakielako Katalunia independentearen ondoren, hizkuntzaren batasuna dela elkarrengana bilduko dituen atearen giltza. Horregatik, koordinatuta eta teknika bera erabiliz, Principatetik kanpora hitz egiten den hizkuntzaren katalantasu ukatu nahi du, ahalik eta oldarkorren: izena ukatuta, gramatika bateratua ukatuta eta kultur merkatua apurtuta.

Agian, Espainiar Estatuak etsi du Kataluniarekin eta gainerako katalan hiztunen lurraldeei begira dabil, haiek ez galtzeko”.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### «Paradisu fiskalak ixtea oso erraza da»

GOBERNU GUZTIAK, batez ere Europako hegoaldekoak –baita Hego Euskal Herrikoak ere–, arduratuta daude euren aurrekontuekin eta murrizketa antisozialak eginez ongizatea desgaiten ari den krisi ekonomikoarekin. Badago formula bat zenbakiak koadratzen lagunduko lukeena: erreforma fiskal sakona egitea. Gobernuak, kapitalismoaren kudeatzaileak alegia, ez dira ausartzen aberastasun handiak ukitzera. Ez dira ausartzen paradisu fiskalak ezabatzea. Baina “paradisu fiskalak ixtea oso erraza da, borondatea behar da, Europak ‘amaitu da’ esan behar du eta dirua bueltan ekarri. Erraza da: herrialde horietan sinaturiko ekintza juridikoak onartzeari utzi behar zaio”. Halaxe adierazi zuen René Passet ekonomista frantziarrak, egungo krisi ekonomikoaz ohartarazi zuen bakanetakoa, ATTACeko batzorde zientifikoko lehen presidentea eta Pariseko Unibertsitateko irakasle emeritua.

“Banku-sekretuak mantentzen badituzte, Suitzako bankuak itxi beharko lirateke”, esan du Frantziako fiskal Eric de Montgolfierrek. Joan den astean,

Madrilen izan zen, Herve Falciani Ginebrako HSB-Cren langile ohiaren estradizio epaiketan lekuko gisa. Falcianik 130.000 iheslari fiskalen kontu sekretuak “lapurtu” zituen, horietatik 4.000 espainiarrak dira eta euskal herritar ugari ere badaude. Langile ohi suitzarra ez da Europako ihesaldi fiskalaren erruduna, eta hala ere epaitegiko aulkian jarri dute. Delinkuente lepezuridunak libre dira, ordea. Banku eta zerga-sekretuak ezabatzen ez diren bitartean eta paradisu fiskalak desgaiten ez diren bitartean, langile ohi suitzarraren jarrera hartu beharko lukete aintzat ogasunetan eta bankuetan lan egiten dutenek, eta delinkuente fiskalek ezkututzen dituzten datu sekretu horiek guztiak filtratu eta argitaratu beharko litzuzkete. Ilegala litzateke, baina kapitalismoak sozialki baztertu dituenekiko eta langabetuekiko elkartasun ekintza duina ere bai.

Juan Mari Arregi

